



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO AZAROAREN 25EAN
GOIZEKO 08:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- 2014/11/12KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2014ko azaroaren 12ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- EXCAVACIONES ZUAZNABAR, S.L. ENPRESARI URDAIAGAKO 4. POLIGONOKO 219. PARTZELAN BETELANA EGITEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2010-0209

EXCAVACIONES ZUAZNABAR, S.L. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Urdaigako 4. poligonoko 219. partzelan betelana egiteko baimena eskatzen du.

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, eskaera aztertu ostean ondoko txostena eman du:

IT_2014_10_03

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA NAGUSIAK

**URDAIAGA 4. POLIGONOKO 219 PARTZELAN BETELANA
EGITEKO UDAL BAIMENA**

KOKAPENA: Urdaigako 4. poligonoko 219. partzela.
ESKATZAILEA: Jose Antonio Segurola Arregi.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2010-0209



Usurbilgo Udala



1-AURREKARIAK

- 2010/05/13 Excavaciones Zuaznabar, S.L.-k 119.121 m³ko betelana egiteko eskaera aurkezten du, aurrekontua 27.775,46 € da. baimena eskatzen du.
- 2010/07/19 an interesatuak, Ura eta biodibertsitate gaietan eskumena duten erakundeei txostena eskatu zien.
- 2010/11/10ean Ura agentziak ALDEKO txostena igortzen du. Biodibertsitate sailak ez du erantzuten. (isiltasuna positibotzat uler daiteke)
- Betelana egin nahi den eremua, lurzorua kutsa dezakeen jarduera izan duen lurzorua den argitzeko, Usurbilgo Udalak 2012ko maiatzaren 7an kontsulta igortzen du Eusko Jaurlaritzara, idatziz erantzunik ez da jasotzen baina ahozko komunikazio bidez ez dela kutsatutako egon litezkeen lurren inbentarioan sartzen jakinarazten zaio udalari.
- 2012ko abenduan aurkezturiko proiektuan, betelanaren dokumentazio gehigarria aurkezten dan. Bertan hurrengo aldaketak nabarmentzen dira.
 - Promotore aldaketa. Hemendik aurrera lurraren jabea bera izango da, Jose Antonio Segurola Arregi.
 - Exekuzioa egingo duen enpresa. Construcciones Mariaezcurrena S.L.
 - Bolumentria gehikuntza. 119440 m³.
 - Oinezkoen pasabidea egingo da Santuenea eta betelanaren artean.
 - 14.5 inbentariatutako bide publikoa mantenduko da.
 - Estabilitateari dagokionez, 1,2 ko segurtasun koefizientea bermatzen da eta ez da inolako eskoilerarik aurreikusten.
- Ondoren, Mariaezcurrena enpresa desegin dela jakinda proiektuaren baimen eskaera bertan behera geratzen da.
- 2014ko urrian, lurraren jabea berriz ere Udalarekin harremanetan jartzen da, betelana exekutatuko lukeen enpresa duela jakinaraziz eta baimen eskaerari erantzuteko eskatuz.

2-ERREFERENTZIAZKO ARAUDI ETA IRIZPIDEAK

- 49/2009 dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatu eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 3/98 otsailaren 28ko ingurumena babesteko Lege Orokorra.
- Udal Arau Subsidiarioak.

3-AZTERKETA

49/2009 dekretuaren arabera, betelana gauzatu ahal izateko beharrezko dokumentazioa izapidetu da da eta profesionalen elkargoaren onospena duen proiektu teknikoa eta ur-gaietan



Usurbilgo Udala



eskumena duen organoaren (URA) nahitazeko txostena aurkeztu dira. Bioaniztasun gaietan eskumena duen erakundera ere igorri da proiektua baina ez da erantzunik jaso, isiltasuna positibotzat jo daiteke, eta egun eremuak duen biodibertsitatearekiko interesa urria da, zenbait espezie inbaditzaileekin dagoen arazoa nabarmena delarik.

Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera betelana nekazaritza abelazkuntza babeseko zonan kokatzen da eta lur mota honi dagokion araudia 65, Art, jasotzen da. Bertan zehazten dira sustatuak, onargarriak eta debekatuak diren jarduerak.

Aipatu betelanaren helburua, proiektuaren arabera, egun dagoen landa lurraren nekazal erabilpena hobetzea da larre eta sagasti erabilpena bultzatuz. Beraz nekazal erabilpena sustatzea da helburua, udal arau subsidiarioek sustatzen duten erabilpen berdina alegia.

Betelanaren egokitasunari dagokionez, egungo egoera aztertzen bada tarte batzuetan %52 ko aldapak daude eta beste batzuetan %22ko aldapak. (Mekanizalea izan dadin %20 ko aldapa onartu ohi da edo bestela betelanaren morfologia egokitu beharko litzateke mekanizalea izan dadin, bankal bidez adibidez), ondorioz, betelanaren abiapuntua oso da malkartsua. Betelanaren morfologia kontutan hartuz, **eremuaren landa erabilpena** erraztu beharrean **zaildu egiten da**, mekanizatzen oso zaila litzatekeen sagasti bat gauzatuko bait litzateke. (Proiektuaren justifikazio agronomikoaren proiektuan aipatzen da, bankal bidezko sagasti baten komenigarritasuna.)

Bestalde, aipatu beharra dago, betelanaren irisgarritasunari dagokionez, Santuenea – San Esteban bitarteko errepidea zartatzen hasia dagoela eta kamioien joan etorriak egoera hori areagotu dezakela.

PROPOSAMENA:

Azterketaren ondorioz, betelan erabilera baimengarria eta sustagarria bada ere, kontutan izanda proposaturiko betelanak ez duela landa eta nekazal erabilera errazten, baizik eta zaildu egiten duela, aldapak areagotuza eta erabilpen mekanizaleak oztopatuz, **KONTRAKO** txostena igortzea proposatzen dut, aurkezturiko proiektuak hurrengo bermatzen ez duen bitartean.

- Udal arau subsidiarioekin bat datorrela eta beraz landa erabilpena sustatzen duen betelan bat dela, justifikazio agronomikoko proiektuan jaso bezala mekanizalea izango den bankal bidezko betelan bat gauzatuz.

Bestalde, Santuenea eta San Esteban arteko bidearen egoera ikusita, errepidearen egoera eta karga gaitasuna aztertuko duen txostena egitea beharrezkoa ikusten dut.

Usurbilen, 2014ko urriaren 10ean.
Udal ingurumen teknikaria Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi.



Usurbilgo Udala



Eskaria kontutan hartuz eta udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: EXCAVACIONES ZUAZNABAR, S.L. enpresari Urdaigako 4. poligonoko 219. partzelan betelana egiteko udal baimena UKATZEA.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

3.- WEI ZHAN JAUNAK, ZUBIAURRENEA KALEA 6, BEHEAN EZARRI DUEN BAZAR TXINATARRAREN IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2007-0450

WEI ZHAN jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dut Bertan, Zubiaurrenea kalea 6, behean martxan duen bazar txinatarraren irekiera baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2007-0450

ESKATZAILEA: WEI ZHAN

JARDUERA MOTA: Bazar txinatarra

NON KOKATUA: Zubiaurrenea, 6 - behea - Usurbil

AURREKARIAK

2007ko abenduaren 18an, 5081 sarrera zenbakiarekin, WEI ZHAN jaunak, bazar txinatarra ezartzeko eskaera aurkeztu zuen udalean, Ana Arranz Irigoyen arkitektoak idatzitako proiektuarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2008ko otsailaren 26an, Zubiaurrenea kalea 6, behean bazar txinatarra ezartzeko obretako udal baimena eman zion WEI ZHAN jaunari.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, 2014ko urriaren 8an, Chang Liu Jiang jaunak ezarritako bazar txinatarraren irekiera baimena eskatu du.

Eskaera aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

**ESKAERA: JARDUERA BAIMENA
JARDUERA: DENDA (TXINATAR BAZARRA)
ESKATZAILEA: WEI ZHAN
KOKALEKUA: ZUBIAURRENEA KALEA 6 BEHEA
LURZORU SAILKAPENA: HIRI LURZORUA**



Usurbilgo Udala



ESP. ZENB.: HZ.07/2007-0450

AURREKARIAK

Zubiaurrenea 6 behean bazar txinatarra irekitzeko eskatu zuen Wei Zhan-ek 2007-12-18an eta Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak baimena eman zion obratarako 2008ko martxoaren 10ean.

TXOSTENA

Zubiaurrenea 6 behean bazar txinatarra irekitzeko udal baimena eskatu du Chang Liu Jiang-ek.

Zubiaurrenea 6 eraikuntza AASSetako A-48 (C/SE) EGUZKITZA eremuan kokatzen da. Eremuko ezaugarrien fitxak honela dio besteen artean:

3- ERABILERAK

Egoitzazkoa goiko solairuetan.

Bizitzeko kopurua 93 UN 1, 2 eta 4 blokeetan, behe solairuetan erabilera merkataritza izango da, gainontzekoetan garajea, biltegi edo merkataritza.

4- ZUZKIDURAK

Aparkaleku plaza kopurua azalera 17 UN

5- ERAIKUNTZEN BALDINTZAK

Egungoak.

Garajeak onartzen diren behe solairuetan, hauek gehienez ibilgailuen sarrera eta irteera bi bao ahal izango dituzte, alboko fatxadetan kokatu beharko direlarik. Bao hauek proportzio eta ezaugarri berberak izango dituzte eraikuntza bakoitzean eta kokatzen diren fatxadaren gainontzekoarekin bat egin duen trataera izan beharko dute.

Eskaerarekin batera aurkezten du, obrako amaierako eta neurri zuzentzaileak bete direnaren ziurtagiria, Iñigo Gonzalez Sarobe arkitekto teknikoak sinatuta.

Jarduerarako ezarritako neurri zuzentzaileak osatu diren egiaztatzeko, ikuskapena burutu da.

Jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu duenez oniritzia ematen da jarduerari.

2014ko azaroaren 21ean

Udal aparejadorea

Felix Aizpurua

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A



Usurbilgo Udala



LEHENDABIZI: WEI ZHAN jaunak, Zubiaurrenea kalea 6, behean ezarri duen bazar txinatarraren irekitzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

4.- 2014KO KULTURAKO HAINBAT DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Espedienteak: Usurbilgo Dantza taldea (KE.01/2014-055)

Ikusirik

2014eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, 2014ko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, kultur elkarteek hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

Usurbilgo Dantza taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
15. Euskal dantzen ikastaroa eta emanaldiak	1,140,00 €	855,00 €	Gastuak: 4,857,19 € Sarrera: 4,380,00 € 17. eta 21. ekintzako soberakina 836€ Guztira Gastua: 1313,19 €	285,00 €
17. Maskarada ikustera iparraldera irteera.	30,00 €	22,5 €	Gastuak: 550,00 € Soberakina 520 €	7,50 €
			Guztira	292,50 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Alegazioei erantzuteko Kultura Teknikariaren txostenak

Guzti hau kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Dantza Taldeari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:



Usurbilgo Udala



Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Usurbilgo Dantza taldea	15-17	292,50

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:
1.4000.481.451.10.03.2014 (A6/2014)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:35ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.